

MIKEL IRIONDO ORENSANZ
*Genetika, Antropologia Fisikoa
 eta Animalien Fisiologia Saila,
 Zientzia eta Teknologia
 Fakultatea (UPV/EHU)*



CARMEN MANZANO BASABE
*Genetika, Antropologia Fisikoa
 eta Animalien Fisiologia Saila,
 Zientzia eta Teknologia
 Fakultatea (UPV/EHU)*



Hominidoak ala homininoak

ZER GARA GU?

Gure ahaide ebolutibo hurbilenak txinpantzeak direla argi eta garbi dugu gaur egun. Orain dela 6-7 milioi urte bizi izan zen gure eta euren arteko azken arbaso komuna, eta banaketa ondoko giza leinuko espezie-fosil ugari ezagutzen ditugu, hala nola, *Ardipithecus* eta *Australopithecus* generoko espezieak eta gure generokoak diren *Homo habilis*, *H. erectus* edo iaz aurkitutako *H. naledi*, beste askoren artean. Orain, gure leinuko genero eta espezie horien taldea izendatzerakoan zein izen erabili beharko genuke? Batzuk “hominido” hitza erabiliko lukete; beste batzuk, aldiz, “hominino” izendatuko lituzkete eta aipatu beharra dago azken termino hau dela gaur egun zientzialarien artean hobesten dena. Baina badaude oraindik hain ezagunak ez diren beste aukera batzuk, hala nola, “hominineak” eta “hominoak”. Zein da egokia? Horren inguruan hitz egingo dugu lantxo honean. Adi, mesedez, irakurle, hitz horiek guztiek esanahi desberdina baitute!

Gizakiak, tximino antropomorfoak bezala ezagutzen ditugun txinpantzeak (txinpantze arrunta eta bonoboa), gorila, orangutana eta giboiekin batera, Hominoidea superfamilian sailkaturik daude. XX. mendearen amaiera arte ikertzaileek hiru adarretan banatzen zituzten “hominoideoak”: gizakia alde batetik (Hominidae familia), giboiak bestetik (Hylobatidae familia) eta txinpantzea, gorila eta orangutana Pongidae familian. Gauzak horrela, “hominido” hitza erabiltzen zen giza leinuari buruz hitz egiterakoan. Baina XX. mendearen bigarren erditik aurrera egindako analisi molekularrei esker behin betiko finkatu genituen hominoideoen arteko erlazio ebolutiboak, eta ahaidetasunaren arabera banatzen dira egun maila taxonomiko desberdinak.

Sailkapen eskola kladista honi jarraiki bi familia bereizten ditugu: Hylobatidae (giboiak) eta Hominidae (beste guztiak; “hominidoak”). Azken honen barruan bi subfamilia daude: Ponginae (orangutanak) eta Homininae (gorila, txinpantzeak eta gizakia; “hominineak”). Homininae subfamiliaren barruan bi tribu bereizten ditugu: Gorillini (gorilak) eta Hominini (txinpantzeak eta gu; “homininoak”); azkenik tribua subtribu mailan bereizten delarik: Panina eta Hominina (erabilera arruntean “hominoak”). Sailkapen-ereduen helburua

talde baten filogenia —ahaidetasun-zuhaitza— islatzea izanik, giza leinuko espezie guztien sailkapena subtribu mailaraino eraman beharko genuke, eta gure leinua izendatzeko “hominoak” terminoa erabili.

Baina orduan, zergatik hobesten dugu egun “hominino” terminoa? Bizpahiru gauza hartu behar ditugu kontuan galdera horri erantzuteko. Lehena, kladismoa gero eta onartuagoa dagoela sailkapen-eredu gisa. Bigarren, sailkapenak guk egiten ditugula (beste izaki bizidunek ez dute momentuz proposamenik aurkeztu...), eta ikerlari batzuek ez dute egoki ikusten giza espeziea beste animalietatik hain hurbil egotea; azken batean, lortu dugun garapen maila ez du parekorik animalien munduan. Sailkapenen inguruko eztabaidaren adibide gisa, beste bi proposamen ekarriko ditugu hona; muturreko adibideak dira baina biek “oinarri zientifikoak” dute.

Lehena J. Huxley-k proposatu zuen 1957. urtean. Bere ustez, gizakiok, beste animalien alde biologikoaz gain, prozesu ebolutiboaren alde berri bat izango genuke, alde psikosoziala. Horrela, Plantae eta Animalia Erreinuak diren bezala, guk Erreinu berri bat osatuko genuke: Psychozoa, hain zuzen. Huxley-ek giza leinuaren



ARG.: USAID/CCO

bereizketa maila taxonomiko nagusie-
nean jarri zuen. Kontrako muturrean,
Elizabeth Watson-ek, S. Eastel-ek eta
D. Penny-k 2001. urtean proposaturikoa
dugu. Beraiek egindako kalkuluek argi uz-
ten dute gizakien, txinpantzeen eta gori-
len arteko ezberdintasun genetikoak, ge-
nero berean sailkatuta dauden beste
ugaztun ugarien parekoak direla eta hor-
taz, sailkapen objektibo bat egiterakoan
aipaturiko hiru espezie hauek genero ber-
dinean kokatuak egon beharko liratekee-
la, hots, *Homo sapiens*, *Homo niger* eta
Homo gorilla izendatu beharko genituz-
keela, hurrenez hurren.

Irakurleak ikusi duen bezala aukera ugari
ditugu gure espeziea sailkatzeko, bakoit-
zak oinarri ezberdin bat duelarik, eta ho-
rrelako kasuetan adostasuna beharrez-
koa da aurrera jarraitzeko. Hori egin zuten
2000. urtean Palman antolatutako “*Inter-
national Colloquium on Taxonomy and Syste-
matics of the Human Clade*” izeneko Na-
zioarteko Kongresuan. Bilera aurretik,

**“Sailkapen guztiak
egokiak izan daitezke,
baldin eta argi badugu
zer azaldu nahi dugun
sailkapenarekin”**

munduko antropologo eta paleontologo
guztiei gutun bat luzatu ziguten galdera
bakar batekin: “Zein da zure ustez giza
leinuko espezieak sailkatzeko maila taxo-
nomiko egokiena?” Erantzun posibleak
gorago aipaturiko gehienak ziren: familia,
subfamilia, tribua, subtribua edo generoa.
Gehiengoak tribuaren alde egin zuen,
“homininoak” beraz.

Zientzian, zenbait gauza ez dira beltzak
ala zuriak, batez ere gure espeziearekin
ari garenean. Gure ezaugarri bereizgarriei,

hala nola kontzientziari, balio moralei
edo hizkuntzari zein da eman behar die-
gun garrantzi erlatiboa? Edo agian geneti-
kak ematen duen objektibotasunari egin
behar diogu kasu bakarrik? Zer garrantzi
izan behar du tradizioak honetan guz-
tian? Ikusi dugun bezala, sailkapen guz-
tiak egokiak izan daitezke, baldin eta argi
badugu zer azaldu nahi dugun sailkape-
narekin. Gu eta gure leinuko espezieak
“hominido” izendatzea egokia izan daite-
ke, tradizionalki egin den bezala gure
ezaugarri bereizgarrien garrantzia azpi-
marratu nahi badugu, baina antropolo-
goen artean termino hau *demodé* dagoela
esan dezakegu. Egun, gu eta gure leinuko
espezieak izendatzeko lortu dugun ados-
tasuna “hominino” terminoan dago. Egun
horrela da, etorkizunean, hurrengo belau-
naldiko ikertzaileak lanean daudenean,
pentsamolde ezberdinekin, auskalo. ●

Irakurri “*Homo sapiens*
gizakia bere bakardadean”
ereportajea



SAREAN+